

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Osasunaren ustez, 2008-2012 denboraldian, 841 minbizi-kasu lanarekin loturikoak izan zitezkeen

NOPLOik 2017ko bisiten kanpainan sartu zituen arrisku kimikoekiko esposizio handieneko jarduera ekonomikoa zuten enpresak

Asteazkena, 2018.eko apirilak 18

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren (NOPLOI) ustez, 2008-2012 denboraldian, lanean jatorria izan zezaketen 841 minbizi-kasu erregistratu ziren guztira Foru Komunitatean. Horietatik 286 azaleko minbiziaren ingurukoak izan ziren (ez melanoma), 265 biriketako minbiziarenak, 60



"Laneko minbizia azaltzen" jardunaldiaren une bat.

mesoteliomarenak, 40 maskuriko kartzinomarenak eta 10 sinu paranasalekoak. Kopuru horiek aurrean izanda ere, denboraldi berean soilik 7 minbizi-kasu deklaratu ziren gaixotasun profesional gisa, horien Erregistro Ofizialean, hots, CEPROSS izenekoan (2 mesotelioma, 2 biriketako minbizi, 2 sinu paranasalekoak eta beste bat sudur barrunbekoa).

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak, María José Pérez Jarautak, datu horiek ezagutzera eman ditu "[Laneko minbizia azaltzen](#)" jardunaldiaren inaugurazioan zehar. Jardunaldia Prebentzio Zerbitzuetako teknikari eta osasun-langileei, Nafarroako Osasun Zerbitzu-Osasunbideako osasun-arloko profesionaleri, mutuei, ordezkari sindikalei eta enpresa-erakundeko ordezkariari zuzendu zaie. Saioan 120 agente sozial eta prebentzioko agente baino gehiagok hartu dute parte. Pérez Jarautak ondorengo azpimarratu du: "Laneko kantzerigenoekiko esposizioari buruz Herri Administrazioek duten informazioa eskasa da, eta hori beharrezkoa da hori ezagutzeko lanean jarraitzea".

Bestalde, Mercedes Corretge dokumentatzaileak jorrotutako gaien inguruko ikusmen-akta egin du, saioa amaitzean aurkeztuko dena.

Jardunaldiak arrisku higienikoen Kudeaketa Hobetzeko Programarekin batera egiten dira, Nafarroako Lan Osasunaren 2017-2019 Ekintza Planean kokatua. Aipatu programan ondorengo jarduera nagusiak biltzen dira: agente kimikoekiko esposiziotik eratorritako gaixotasunen

azpideklarazioa lantzea; agente kantzerigeno edo mutagenoen aurreko langileen erregistroa sortzea; arrisku higienikoen ebaluaziorako metodo espezifikoak aplikatzea eta Erreproduktorako (CMR) agente Kantzerigenoak, Mutagenoak eta Toxikoak aldatzea bultzatzea, produkzio-prozesuetan erabiltzen eta sortzen direnak. Halaber, inplikaturako prebentzio-agenteen eta agente sozialen informazioa eta prestakuntza eta enpresentzako aholkularitza-kanpainak sartzen dira.

Ildo horretan, Nafarroan, NOPLOiko Lan Osasun Zerbitzuak 2017an egindako bisita-kanpainan, besteak beste, arrisku kimikoekiko esposizio handiena zuten jarduera ekonomikoko enpresak sartu ziren, haien egungo egoera ezagutze aldera; tartean ondorengoak nabarmentzen dira: hondakinen tratamendukoak, deskontaminazioa, ibilgailu motordunen konponketa, garraioa, basogintza, nekazaritza eta produktu metalikoen fabrikazioa. Aipatu kanpainaren emaitzak esplotazio-fasean aurkitzen dira.

Laneko minbizia EBren esparru estrategikoan

Europako Agentziaren ustez, minbizia da Europar Batasunean lanarekin loturiko heriotza-kausa nagusiena.

Laneko osasunaren eta segurtasunaren arloan, EBren 2014-2020 Esparru Estrategikoan azpimarratzen da kartzinogenoekiko, mutagenoekiko eta erreproduktorako substantzia toxikoekiko esposizioaren aurka langileak babesteak duen garrantzia. Ondorioz, Segurtasunaren eta Osasunaren Europako Agentziak ondorengo kanpaina garatzen du: "2018-2019 Kanpaina. Lan osasungarriak: alerta substantzia arriskutsuen aurrean".

Europako eszenatoki hori kontuan hartuta eta horri langileak lanean zehar agente kantzerigenoekiko eta mutagenoekiko esposizioarekin lotutako arriskuen kontra babestearen inguruko 665/1997 Errege Dekretuko Gida Teknikoaren inguruan Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizateko Institutu Nazionalak egindako eguneraketa gehituta, beharrezkoa ikusten da agente kimiko horiekin zerikusia duen arriskuaren kudeaketa berrikustea proposatzea.

Galería de fotos



Cartel con el que se trata de concienciar a empresas y trabajadores sobre los riesgos de esta enfermedad en el ámbito laboral.



Mercedes Corretge dokumentatzaile grafikoak jardunaldian jorrotutako gaien inguruko ikusmen-akta egin du.